

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko martxoaren 1a

*

Pedro Meca eta Isabel Diez, bi nafar Parisen. Apaiz dominikarra lehenengoa, Parisko behartsuen eta bakartien eguneroko borroka bere egin du eta *La Cloître* tabernatik hasieran eta *Compagnons de la nuit* elkartetik orain, justizia aldarrikatzen du horientzat guztientzat. Isabel Diezek ere ezagutu ditu etorkin, ijitu eta, oro har, marjinatuen eguneroko bizitza, gertutik. Nafarroan hasi zen beraiekin lanean. Parisera 24 urterekin ailegatu eta ezkondu ondoren han gelditu zen. Nafarroan sortu zitzaion bokazio sozialak bultzatuta, etorkinekin egiten du lan Parisen ere. Euren bizitzaren eta lanaren berri eman digute nafarrok bertan.



Bi nafar Parisen zokoratuen alde

Mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Aurreko hauteskunde kanpaina garaian sartuta geunden. Zezen plaza ondoko espaloian nengoen, zebraide bazterrean. Semaforoaren argia aldatu zenean auto bat gelditu zen, eta gidaria, burua eta besoa atera eta keinu bat egiten hasi zen. Ikusi ninduen instantean, inguruko oinezko bakarra nintzela ohartuta, atzera egin zuen, burua eta besoa sartu eta aurrera begira jarri zen. «No, aurpegi hori ezaguna duk», esan nuen nire golkorako. Beste aldera iritsita burua bihurtu nuen. Txoferra agure bati galdezka ari zitzaion. Orduan konturatu nintzen: autokoa Jaime Mayor Oreja zen. Irribarretsu aldegin nuen handik.

Irribarretsu, ez pozik nengoelako, ohituta baizik. Izan ere, urte asko dira, eta antzeko etsenplu gehiegi; eta urteak betetzeak apenas aldatu dizkidan gauzak. Hasieran duda egiten duzu, denbora pasa ahala, ordea, ohartzen zara badela besterik. Nik ere nire zerak iza-

nen ditut, baina badakit paranoiatic libre ibili izan naizela beti. Noizean behin erreposoa etortzen da, lagunak ondoan ditudala badaezpada ere. Identifikazio, katxeo, kontrol, purrustada eta zakarkeriekin batera polizia, atezain, funtzionari, taxista, kamarero eta hiritar ezezagun askoren aurpegiak etortzen zaizkit burura. Umoreak biziki laguntzen du. Makurrena da beti ateratzen dela gauzak oso argi dituen bakarren bat: «Zer nahi duk? Txima horiekin...».

Aferak badu beste alde bat: sinpatia. Eta sinpatiak beste bi. Lehena mozeroduna: «Bah!, honekin zeremonia gutxi...». Bestea konplizearena: «Hau gutarra duk». Eta betikoa betikoarekin: «Zer nahi duk? Txima horiekin...».

Aski ongi dakit zer nahi dudana: erantzuteko denbora. Bati zera ihardetsiko nioke: «Bai, nola ez, begira, hau eta hau egin behar duzu Donostiarako saihasbidea hartzeko... Ez da zeren». Besteari: «Ez, ez zeukat txokolaterik, baina egun

ederra diagu, ez da hala?». Erantzuteko aukera, eta tokatzen bada, jarraitu ahal izatekoa. Ez da erraza, estereotipoak borrarero eta biktima bihurtzen baikaitu. Horrelakoetan irribarrea eta presarik eza ez dira erantzunik txarrenak. Askotan, tamalez, oldartu beharra dago, konpostura galdu gabe, ahal bada.

Belarririkoa eta elastiko zimurtuak eramaten dituen lagun batek kontatu zidana datorkit gomutara. Taxia hartu zuen Gazteluko plazan. Abiatu orduko taxista komentario ustez barregarriak egiten hasi zen musuka ari zen bikote baten gainean. Nire lagunak berehala etenarazi zion iharduna: «Usted límite a conducir». Pedro Navajas.

Metropolia. Metropoliak hein batean leuntzen eta estaltzen ditu hitzen erteko akatsak. Hamazortzi urte nituelarik izan nintzen lehendabizikoz Parisen. «Vous êtes très gentil, monsieur», esan zidaten pare bat aldiz. Urtean behin joateak mesede egiten dit oraindik ere. X

✂ GURE AUKERAK

ERAKUSKETAK

Iruña: Lacava kafetegian Andres Montielan lanak daude ikusgai. Erakusketa martxoaren 17ra arte egonen da zabalik.

Iruña: Jesus Mari Etxea tabernan Juana Diez margolariaren olioak daude ikusteko. Bere lanak aztertu nahi dituenak martxoaren 26ra arte du aukera.

Iruña: Jai Alai jatetxean Daniel Menendezen margoak ikusteko parada dago. Bere lana apirilaren 9ra arte izanen da zabalik.

Iruña: Maisonnave hotelean Retana margolari iruindarraren lanak daude ikusgai datorren martxoak 15era bitartean.

ZINEMA

Tafalla: Cinema Españolen Astérix, el golpe del menhir pelikula emanen dute bihar arratsaldeko 6.00etan, eta etzi, berri, arratsaldeko 3.45etan. Sarrera 100 kostako da.

Lizarra: Gustavo de Maeztu Museoan El amigo de mi amiga pelikula eskainiko dute gaur arratsaldeko 8.00etan.

ANTZERKIA

Iruña: Nafarroako Antzerki Eskolan antzerkia izanen da igandean. La princesa de fresa lana antzeztuko du Gus Marionetas taldeak arratsaldeko 6.00etan. Sarrerak 350 pezeta balio du.

BERTSO SAIOA

Donibane-Garazi: Vauban zinema aretoan bertso jaialdia izanen da igandean 15.00etan. Honako bertsolariak ariko dira bertso kantari: Aitor Mendiluze, Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Anjel Mari Peñagarikano, Xabier Euzkitze eta Jon Sarasua.

Atarrabia: Nafarroako Bertsolari Txapelketako bigarren kanporaketa saioa eginen da igandean arratsaldeko 4.30etan. Lehian izanen dira: Nerea Bruño, Bittor Elizagoien, Estitxu Fernandez, Jean Louis Harinordoki Laka, Xabier Legarreta eta Xabier Silveira.

BESTELAKOAK

Iruña: Nafarroako Kirol Elkarteak Jarauta kaleko 78. zenbaitan duen egoitzan Alpeei buruzko diapositiba emanaldia eskainiko du gaur. Jose Luis Lakuntza eta Manuel Fernandez mendizaleek egindako bidaia kontatuko dute. Emanaldia arratsaldeko 8etan izanen da.

Iruña: Zaldiko Maldiko elkartearen Abiadura Handiko Trenari (AHT) buruzko bideo emanaldia izanen da datorren ostegunean, arratsaldeko 8etan. AHTren aurkako asanbladak antolatuko du. Ondoren eztabaida izanen da.

Iruña: Internet eta zentsura izanen ditu mintzagai, gaur, arratsaldeko 8.30etan Armando Ramos Nafarroako Internet Elkar-

nafar kronika

Alberto Barandiaran

Izaba-Arette

Duela hogeita hamar bat urte egin zuten, gaur egun Angel Oloron deitzen den aterpearekin batera. Larre eta belardietara eramaten zuten hasieran errepideak, baina gero lotu zuten Biarnoko Arette herritik zetorrenarekin, eta Pirinioz gaindi beste bide bat zabaldu zen horrela. Beste bat gehiago.


Bideberri honek ukazinezko eragina izan du Belaguan eta Erronkari osoan. Berari esker aterpea mendi hotela da egun, fondoko pistak eraiki ahal izan ziren Zanporin eta Belagua gainean eta Aretteko eski estazioa Nafarroako eski estazio bakarra dela esan daiteke. Bera gabe, finean, ez zen izanen Izabak eta Erronkarik egun duten turismoaren onura ekonomikoa.

Ez dira denak, baina, alde onak. Errepidea ia negu osoa —gehien behar denean— egon ohi da elurrez beterik, eta lan handia eskatzen du elurra kentzeko makinentzako. Nafarroako Gober-

nuarena izanik ere, Akitaniako erakundeak garbitzen du aterperaino, baina frankotan gaizki ulertuak izaten dira, eta oraingoan, kasu, hamar egun darama itxita errepideak.

Ez da goiko alde horretan bakarrik sumatzen horren eragina. Izabako dendariak eta ostalariak bertan nahikoa arrazoi badute gobernuarekin haserre egoteko. Iruñetik egunero ematen diren eguraldi aurrikuspenetan aspaldiko partez azaltzen da lelo berbera: «Izabatik Frantziara doan errepidea itxita 12. kilometrotik aurrera». Errepidea ez dago, hala ere, beti itxita, eta herrian etengabe errepikatu behar izaten diete telefonoz hots egiten dietenei ez dagoela arazorik Arettearaino heltzeko.

Bat baino gehiago damutu da bere garaian errepide hau egin izanaz. Orain, erabilgarri izan dadin behar bezala zaindu ezean, kalte handia izango litzateke Izabarentzat. Eta arazoa konpontzea ez dirudi izugarri zaila denik.



asteko pertsonaiak



Jaime Iribarren
HBko parlamentarioa

Poliziak Jaime Iribarren HBko foru parlamentarioa atxilotu zuen astelehenean Berriozarren, betetzeko falta zaion kartzela zigorra bete dezan. Arratsaldeko ordu biak eta erdiak aldera atxilotu zuten. Iribarren etxeko atarian zegoen bi polizia hurbildu eta preso hartu zuten. Iribarreni 16 hilabeteko kartzela zigorra jarri zion Entzutegi Nazionalak 1994ko urrian sute delitu batengatik. Berriozarko gazteari Irurtzun-Andoain autobian lanean ari zen enpresa baten makinaren aurkako atentatua leporatu zioten, artean Nafarroako Gazte Kontseiluko lehendakari zela. Aipatu atentatua 1991ko otsailean gertatu zen Iruñeko Sanduzelai auzoan.



Koldo Artola
Ikerlea

Koldo Artola ikerle gipuzkuarrak Nafarroako euskalkien erreposoa egin zuen astelehenean Iruñean. Aranzadi zientzia taldeko partaidea, Atlas Etnolinguistikokoan aritu da lanean eta gaur egun Irizar dialektologoarekin egiten du beharra. Ez du ikasketa berezirik egin, baina bere zaletasunak euskal hizkera desberdinak aztertzea bultzatu du eta urte askoan jardun du lan horretan. Hitzaldian, azken urteotan Nafarroako zenbait herritan izandako aldaketak eta azken hiztunak izan zituen mintzagai. Bonaparte printzeak duela 140 urte egin zuen euskalkien mapa ere aipatu zuen Artolak, eta aditu batzuek mapari buruz dituzten dudak ere aztertu zituen, zenbaitek kolokan jartzen dutelako egin zuen sailkapena.

ahaztu gabe!



JAIALDIA

Iruña: Itoitzekin Elkartasuna taldeak jaia ospatuko du gaur Iruñeko Gaztetxean, arratsaldeko zortzietatik aurrera. Taldeko kideek prestatu duten egitarauari dagokionez, lehenik eta behin, Itoitzeko urtegiaren aurka orain arte egin diren ekintza guztien bideo emanaldia antolatuko dute, arratsaldeko zortzietan bertan.

Honen ondoren, gaueko bederatzieta, urtegiaren aurkako antzezlanak egiten dute Gaztetxean, *Urtegiarik ez!* izenburupean. Jaia eta urtegiaren aurkako borroka, beraz, batu egiten dira Gaztetxeko gaurko bestan.

Jarraian, bederatziak eta erdiak aldera, Familia Polloe eta Kashbad taldeek kontzertua eskainiko dute Itoitzekin Elkartasuna taldeko kideek antolatuko duten jaialdian. Kontzertua ikusi eta entzun nahi duenak 300 pezetako sarrera ordaindu beharko du Gaztetxean sartzeko.

Jaialdian zehar, halaber, urtegiaren aurka egindako ekintzei buruzko panel erakusketa ikusgai izanen da. Gose direnentzat, gainera, ogitarteko goxoak banatuko dituzte.

adi!

Euskalerria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

Karrape Irratia FM 107,8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gaitetik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Atarrabia

Bertsolari Txapelketako bigarrena etzi

Sei bertsolari ariko dira lehian Atarrabiako zineman, lau eta erdietatik aurrera

Nafarroako Bertsolari Txapelketako bigarren saioa egingo dute igandean Atarrabian, lau eta erdietatik aurrera, herriko zineman. Lehenengo saioan bezala sei bertsolari ariko dira Atarrabiakoan ere, horietatik lau gazte, 20 urte artekoak. Puntu gehien eskuratuko duenak Saio Nagusirako txartela lortuko du; bigarrenak, berriz, finalaurreako.

Kike Diez de Ultzurrun / Iruñea

JOAN DEN IGANDEAN Baigorriko Bil-etxean abiatutakoak Atarrabiako Zineman izanen du segida etzi, arratsaldeko lau eta erdietan hasita. Bertze sei bertsolari ariko dira, eta, seiostatik lau gazte dira, 20 urte artekoak. Laukote horretan Xabier Silveira dugu esperientzia handiena bildu duena, gaztetxo hasi baitzen helduen lehiaketan, eta, beharbada, aurten lor lezake azken kolpe hori daukan irudimen eta freskotasanaren araberako bertsokeran tajutzeko. Estitxu Fernandezek ere badaki, bai, zer den lehian aritzea. Ideien aldetik arras ongi dabil, baina ez omen du aukerarik izan txapelketatik kanpo abesteko, eta horrek beti baldintzatzen du bertsolaria.

Arano aldetik plaza gizonaren plantak dituen Xabier Legarreta etorriko da, iaz lehendabizikoz aritutakoa. Bi eskuak sakelan, patxada irudia ematen du, molde



Atarrabian izanen da Nafarroako Bertsolari Txapelketako bigarren saioa, Laka tartean dela.

ARTXIBOKOA

zaharreko bertsolaria aditu diogu baten bati. Nerbioak eta pixalarria lotzen baldin baditu, goiko aldean ibiliko da.

Gazteena, azkenik, Nerea Brulo da, herriko alaba, Iruñeko Bertso Eskolan trebatutakoa. Izan ditu zenbait plaza azken urtebetek honetan, eta, bere lehen txapelketa da. Aspaldiko partez Atarrabiak eman duen lehendabiziko bertsolaria da, jakina. Beharbada, *Karrikaluze Billabako* esanera usu erabiltzen zen garaletan, bertzerik ere izanen zen. Ez dakigu. Ez dugu, zoritxarrez, horren berri.

Aipatutakoez lanadara, pare

bat *mandozahar* ere kantari ikusiko dugu: bata, baigorriarra, Laka, duela 17 urtetik honat huts egin ez duena. Bertzea, baztandarra, Baztango dermioa utzi nahi ez duena. Kasu, saiatuko da, bai, iazkoan ihes egin zion boneta harrapatzen.

Punturik gehien eskuratzen duenak zuzeneko pasea erdietsiko du Saio Nagusirako, eta, bigarrena, berriz, zuzenean joanen da finalaurrea. Dagoeneko, bi lagun ditugu sailkatuta: Arzallusek Goizuetan kantatuko du, eta Estitxu Arozenak Beran.

Baigorriko saioa ongixko iragan zen, ustekabeak ikusteko

paradarik gabe. Arzallus eta Estitxu paretsu joan ziren, baina kartzelakoan gipuzkoarra nagusitu zitzaion lesakarrari. Aurreko batean ere, Estitxuk behera egin zuen azken lan horietan, burua erdi galduta edo. Xalbadorrek, berriz, konporaketako gauzarik bitxiena ekarri zigan, hots, hiru puntuko bertso bat. Bertsolariak nahi zuen doinua eta neurria harrezakeen, eta, urepeldarrak horixe bera egin zuen, hiru puntukoa hautatuz. Amaia Zubiriak bere azken diskoan erabiltzen duen bat, hain zuzen ere: «Bertsoak jarri dizkat nere buruari...». X

Lakuntza

EGUNKARIA

Aralar Txirrindulari Taldearen aurkezpena

Lakuntzako Aralar Txirrindulari Taldeak bere partaideak aurkeztu ditu berriki jendaurrean, aurtengo denboraldiaren hasierarekin batera. Orain dela hamasei urte sortu zen Lakuntzan Aralar Txirrindulari Taldea, eta bertatik igaro dira profesioalarrera iritsi diren Javier Gartzandia eta Jose Luis Arrieta, besteak beste. Aurtengo denboraldian hogeitxirrindulari izanen ditu Aralarrek, hamabi gazteetan eta zortzi kadeteetan. Bestalde, aipatzekoa da hamabi lasterketa antolatuko dituela aurten Lakuntzako taldeak, horien artean profesionalentzako Euskal Bizikletaren etapa bat.

Lakuntzatik atera eta Etxarri-Aranatzera ailegatuko da tropela.



Barañain

Udaletxeko kooperazio laguntzak eskatzeko epea zabalik da

■ Herriko elkarte sozio-kulturalak jaso ditzakete

Erredakzioa / Iruñea

BARAÑAINGO UDALEKO Kultura Batzordeak kooperazio laguntzak banatuko ditu aurten ere herriko talde eta elkarte sozio-kulturalen artean. Aurtengo deialdiak gehenez bi milioi pezetako dirulaguntza banatuko du (80.000 libera inguru).

Barañaingo Udalak deialdi honen bidez herriko elkarteek ekitaldi sozio-kulturalak antolatu ditzaketen nahi du, besteak beste, ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak, erakusketak, antzerkigintza, kontzertuak edo naturarekin zerikusi dutenak.

Barañaingo Udalaren dirulaguntza jasotzeko, hala ere, abenduaren 20a baino lehen egin beharko dira ekitaldi horiek guztiak.

Dirulaguntza jasotzeko eskaera gaur arratsaldeko ordu bata baino lehen egin behar da lehenengo deialdirako, eta irailaren 1a baino lehen bigarrenerako. X

Orba

Ignacio Aiestaran Nafarroako Ehiza Federazioko lehendakari zenari omenaldia

■ Ehiza probak eginen dituzte Orbako kotoan

Erredakzioa / Iruñea

BERRIKI zendu den Ignacio Aiestaran Nafarroako Ehiza Federazioko lehendakari zenaren omenez, ehiza probak eginen dituzte bihar, goizeko bederatzietatik aurrera, Orbako kotoan. Federazioak berak antolatuta. Alde batetik, ehiza txikiko txapelketa izanen da txakurrekin; bestetik, San Huberto txapelketa eta, azkenik, ehiza zeharkaldia tirada.

Biharko probetan parte hartuko duten ehiztarien artean Lanber eskopeta zozketatuko dute. Sariak banatzerakoan, halaber, auto istripuan zendu den Ignacio Aiestaranen aldeko omenaldia eginen dute. Eguneko ekitaldian bildutako dirua Aiestaranen familiari emanen dio Ehiza Federazioak. Parte hartu nahi duten ehiztariak federaziora deitu behar dute gaur beranduenez, 10 78 53 telefonora. Bihar ere Orbako kotoan bertan eman ahal izanen da izena. X

Xanti Begiristain

Garraioa eta taxi egokituak Iruñean

■ Mugikortasun murrizteko pertsonentzat garraioa oraindik ez dago batere normalizatu ez Iruñean ezta Nafarroa osoan ere. Areago oraindik, hanka sartzeko inongo beldurrik gabe, lasai-lasai esan dezaket, Euskal Herri osoan ere oraindik normalizatu gabe dagoela garraioaren afera mugikortasun murrizteko pertsonen dagokienez. Hau da, fisikoki ongi edo ongi samar dagoen edozein pertsonak noiznahi har dezake komeni zaion garraio mota inolako eragozpenik gabe, esate baterako, hiribus bat (bonobusa barne) ez badu asko xahutu nahi, edota taxi bat gauzez baldin bada, urrutira baldin badao edo fardel asko baldin bada. Era berean, hiriarteko autobusak, trenak, hegazkinak edota itsasontziak erabil litzake erraztasun osoz behar izanez gero. Baina eragozpen fisikoren bat dugunoi, ordea, ez zaigu horrela gertatzen, baizik eta oso alderantziz: ia-ia ezin dugu garraio bide bakar bat ere behar bezala erabili.

Nafarroako Gutxitu Fisikoen Koordinakunde-Elkargoak 17-18 urte darama martxan, eta beraz, besteak beste, garraioaren kontua konpon dadin eskatu die etengabe nafar Gobernuari, udalei eta eskumena duten enpresaguztietan, baina hala eta guztiz ere, ikus dezakezuen, alor honetan oraindik *ptx-otz-letan* gabiltza, hots, oso gaizki.

Nafarroako Foru Legeak, garraioari dagokionez daukan Arautegia oso *barregarria* da, zeren eta jartzen duen guztiak Nafarroako Buletin Ofizialeko orrialde bat baino gutxiago hartzen baitu, hau da, arrunt gutxi. Beste modu batez azalduta, esan genezake gai eta afera guztiak alpatu eta ukitzen dituela, baina denak oso gainetik, ez du deus ere seriotasunez zehazten alegia, eta hori dela-eta gauzak dauden bezalaxe daude. Bestaldetik ere, hemen argi eta garbi adierazi nahi dut, harrigarria bada ere, eta gehiago oraindik gogoan hartzen badugu Legearen lehenengo Arautegia gorpuzteko Nafarroako Gobernuak (edo Parlamentuak) aholkuak eta irizkiak eskatu zizkigula gutxitu fisikooi, bigarren kasuan, diodan bezalaxe, paso egin zigun eta ez zuen gurekin ezertarako kontatu.

Ondorioa, horra: dagoeneko zazpi urte bete dituen Arautegi ziztrin eta zikoitza, eta gainera batere aplikatu izan ez dena. Honekin jarraituz, azpimarratu behar dut, Foru Legeak berak duen aplikarazteko eta beharrezkoa balitz zigortzeko betebeharra, Departamentuarterko Batzordeari behin baino gehiagotan eskatu diogula aspalditik koordinakundearen izenean, alpatutako arautegia garatzeko, hobetzeko eta zehazteko, baina gure orain arteko arrakasta hutsaren hurrengo izan da, gure kalterako, jakina.

Iruñean ditugun garraio zerbitzu egokituak honako hauexek dira: Gurutze Gorriak dituen lau ibilgailu, Elbarrien Koordinakundeak duen bakarra, eta askoz gehiagorik ere ez (orain arte). Aitzitik, dauzkagun gabeziak asko eta handiak dira. Adibide bakar eta hurbil bat baino ez jartzearen, hemen aipatuko dut gure euskaltegian gertatzen dena: 1. Pertsona (ikasle) gutxitu fisiko batek, edo ordu batez itxoin behar izan

ten du egunero Gurutze Gorrikoek etxera eraman dezaten eskola bukatu ondoren, edo bestela bere ahizpa batek espreski joan behar izaten du autoz bera eramateko. Eta hau zergatik? Ba, dauden zerbitzuak, batzuetan ezin direlako iritsi behar gutziak asetzera. Eta bigarren kasua, alegia, gurgil-aulkian dabilen beste pertsona ezagun gazte batek asmoa zuen bere burua matrikulatzeko gure euskaltegian, baina azkenean atzera jo behar izan zuen garraio zerbitzu egoki eta merkerik ez egoteagatik. Eta adibide sortatxo honi bukaera emateko nire lekukotza jarriko dut, hots, orain dela bi eta hiru urte Gurutze Gorriak astero zerbitzu pare bat edo gehiago egin gabe uzten zidan, ezin zutelako abasto eman.

Orain denok dakigu Iruñeko Udalak duela gutxi jarri dituela bost bat eurotaxi egokiturik martxan,



baina momentuz, arazo larriak izaten jarraitzen dugu, oso garestiak baitira bidaia. Azal dezadan: langabezia, edota ikasten ari den pertsona batek lor dezake bonotaxia, baina hala ere oso garestia ateratzen zaio pertsona horri baldin eta bidaia franko egin behar badu, eta bestaldetik, pertsona batek lan egiten badu eta irabazten badu profesioarterko gutxieneko soldata edo gehiago, orduan pertsona gutxitu horri ez dagokio inongo dirulaguntzarik; alderantziz, taxi egokitu horiek erabiltzean sortzen ditugun *eragozpenengatik* 200 peze- ta gehiago ordaindu behar ditugu. Beraz, edonola ere oso garesti gertatzen da. Konponbidea, garraio mota guztiak (taxiak, hiribusak, autobusak, trenak, hegazkinak, itsasontziak, eta abar) normalizatzean legoke. Bitartean laguntza egokiak eman beharko lirarteke. Eta hala eta guztiz ere, 5 taxiak jartzearena aurrerapauso positiboa da. ■

Klasiko bitxi • aront klasiko

Joxemiel Bidador

Valentin Forondaren gainean

■ Gutti datezke egun ezagunak diren argien mendean zebilzkigun aurreratzaila euskaldunak, are guttiago arabarrak zitezkeenak, alabaina egon bazeuden, eta horren froga sailhets orotik heldurik ere patata ereile atzeman dezakegun Valentin Tadeo Foronda Gonzalez Etxabarriko Gonzalez Lupidanoko Argandoña genuke. Gasteizen bertan 1751.eko otsailaren 14an sortu zena, nahiz Forondarren leinua Astegietakoa zen. Bere txit ongi hornitu jabego arabarrari beste horrenbestekoa erants ziezaiokeen ezkonsari 1769.ean Iruñeko San Nikolas eliz parropan Fermina Bidarte Soltxagarekin ezkondu zenean. 1777.ean Gasteizen dugu hiriko udalbatzaren zinegotzi. Bere asmo berritzaile ilustratuei zaputz egin barik, eta hiriko iduria hobetu nahian, zenbait neurri eta lege onartarazi zituen, hala nola atari guzien aurrekaldeak isastu eta obretan zeuden eraikitzen argitzeari zegokienez, hiritarren gus-tokoak gehixegi bide etzirenak bestalde, ostalaritzan iharduera zutenena bereziki. Forondak ateratako araudi berria begiraten etzutenak gartzeleratu zituen, eta hori zela eta egundokoak izan zituen Atanasio Jose Lorea auzapezarekin. Azpeitiko zalduntxoan taldean ere sartu zen 1776.ean, baina elkarteak tamalez egun galdurik dagoen *Compendio histórico cronológico de la historia moderna* izenburuko lana argitaratzeko eskeini etzion laguntza eta erakutsi zuen interes eza aitzaki, hiru urte beranduxeago laga zuen lagundia. Forondaren ditu iturriak bere aitak utzi zizkion Caracasko Konpainiaren partehartzeaz gainera, baita berak bultzatu Ekialdeko Indietako edo Filipinetako Konpainian zituen interesetik elkitzen ziren, hala nola San Carlos Banketxean zituen akzioetatik. Halarik ere berak uste zuenaren aurka interesak urritzen hasi ziren eta sosak erdiesteko benetako arazoak pairatu zituen. 1782.ean Bergaran dugu bizilagun. Une horietan Españaiko Carlos IV.aren etorrerak eta Frantziako iraultzak bertan izan zuen oihartzunak beldurra sarrarazi zion Floridablanca ministrariari eta askatasun politikoa hertsu zen amini bat, nahikoa izan zena Foronda inkisizioarekin arazoak izateko, debekatuak zeuden liburuak itzuli izana eta Frantziako politikaren mireslea izatearen salaketapean. Zertxobait pobreturik nonbait, funtzionari postu baten eskuratzeko saio tematiak egin zituen, eta 1801.eko Samiel egunean Estatu Batuetako enbaxadore izendatu zuten. Garai horretan España eta Estatu Batuen arteko harremanak benetan kaskarrak ziren. Estatu Batuen nahi zabaltzaileak zirela eta, Madrilen beldurrez zeuden Florida eta Louisiana mantentzearekiko, eta España amerikarren bultzada Apalatxe mendietan gelditu nahi izan zuen, erdietsi ez zuen gauza, eta hortik bertako tribuekin liskarra areagotzeko saio zitala egin zuen. *Divide et vincas*. Nola-nahi ere den España ahulegi bide zegoen Estatuiekin borroka irekian sartu ahal izateko, eta Louisiana Napoleoni eskeini zion amerikarren asmoak ekiditeko, baina azken honek berriz, Europako aferekin presionaturik, amerikarrei saldu zien 60 milioi liberatan, eta honen ostean, Estatu Batuek Florida eskatu zuten deblauki. Orduko kontsulak, Iruixoko Markisak hain zuten ere, amerikarrek zituen harremanak erdipurdikoak oso bazirenez, Italiara igorri zuten eta Foronda honen ordez abiarazi. 1809.ean Onis ailegatu zenean, Foronda Cadiza abiatu zen. Frantsesen alde egoteaz salaketaren beldur, bere burua erbestera zuten Lisboara urtebete batez, eta handik Galizara joan zen bizitzera. A Coruña hain zuten ere. Bertan lan itzela burutu zuen, bertako apalzoa- rekin zenbait arazo erakarri zizkiona. 1814.ean Madrila egin bidai batean atxilotua izan zen Fernando VII.aren aginduz, eta urtebetez espetxeraturik egon ostean, 1815.eko ekainean hamar urtez Iruñean konfinaturik egotera kondenatu zuten. 1820.era arte etzen barkatua izanen, eta hirurteko liberalarekin bere izena zuritzeko aukera izan zuenean jada etzuen denborarik hortaz oigatzeko, 1821.eko abenduaren 23an Iruñean zendu baitzen. Lan idatzi ikaragarri zabala utzi zuen, gehiena gutun bidez emanda, bere *Cartas sobre los asuntos más exquisitos de la economía política y sobre las leyes criminales* lanik garrantzitsuenetat har daitekeela. Aipagarria dateken beste lan bat Cervantesen gaztelera bortizki epaitzeko ondu zuen *Observaciones sobre algunos puntos de la obra de Don Quijote* dugu. ■



Nafarroako banakako txapelketako bosgarren jardunaldiko partida, 1996ko otsailaren 17an jokatu.

Unai Garbisu, 2.370 ELOkoa — **J. J. Cortes**, 2.255 ELOkoa.

1.e4,c5; 2.Zf3,Zc6; 3.d4,d4; 4.Zd4,Zf6; 5.Zc3,d6; 6.f3,e6; 7.Ae3,Ae7; 8.Dd2,0-0; 9.g4.

Erasoa hasi da.

9.....Zd7; 10.0-0-0,dZ-e5; 11.Ae2,a6; 12.h4,Zd4; 13.Dd4,b5; 14.Eb1,Ad7; 15.f4,Zc6; 16.Dd2,Za5; 17.Ad3,Zc4; 18.Ac4,c4; 19.g5,Gb8; 20.Ea1,Ac6; 21.hG-f1,Dc8; 22.f5,Gd8; 23.Aa7.

Gaztelua toki txarrean uztea bilatzen dute. 23.....Gb7; 24.Ad4,Af8; 25.h5,e5.


Ikus koadroa. Defentsa hobeto antolatzeko egindako jokaldia, peoi bat ematen badute ere. 26.Ae5,Ge8; 27.Ad6,Gd7; 28.Df4,Ad6; 29.Gd6,Gd6; 30.Dd6,Ae4; 31.Ze4,Ge4.

Taula garbitu egin da. Txuriek ekimenari eusten diote.

32.g6,De8; 33.a3,h-g6; 34.h-g6,Ge2; 35.Dd5.

'Gh1' jokaldiaz, mehatxu egin dute.

35.....c3; 36.c3,Ge7; 37.gg1,Gd7; 38.Dh1. Sarrera ezin da galarazi. Beltzek etsi zuten.



Meca eta Diez,
Nafarroatik Parisera

poesia saltzen zuen norbait baik, trukea zegoen. Kaleko mundua, gauf, drogatik, alkoholetik, langabeziatik dator. Kalean kultura zabaleko jendea aurkitzen duzu. Hain zuzen —jarraitzen du sutsuki—, jendearen arteko harremana eskale edo egunkari-saltzaile batekin gertatzen ez den bilgunea da hau, margolari bati buruz, arazo filosofiko bati buruz edo eskulturari buruz eztabaidatzen da bertan. Kulturaren munduaren bidez harremanetan jartzeak segurtasuna eta mundu osoan zehar ibiltzeko gaitasuna ematen dizu. Niretzat garrantzitsua da». Esaten dutenez, bada bizitza hori gustukoa duenik, baita, batzuen ustez, aukeratu egiten duenik ere. «Nik oraindik ez dut horietako bat bera ere aurkitu eta urte asko daramatzat beraiekin. Daukatena aukeratzera behartuta daude ezin dutelako beste ezer aukeratu». Clochard-ak ezetik, kalea ere aldatu da, Pedrok dioenez, «oso bortitza da, jada ezin dute bakarrik lo egin eraso egiten diételako. RMI-a (pobreziari laguntza) kobratzeko egunean —Saint RMI esaten dio— lapurreta asko egoten da. Gaur egun edozeinek eskatzen du zigarro bat, hamar libera, baita ongi jantzitako jendeak ere».

Gizartea ba al da egoera honen erantzule? Gai horri buruz hitz egiterakoan funtsezko galdera da hori. «Guk egiten duguna egin beharko litzatekeenaren zati txiki-txiki bat besterik ez da». Konparazio polita egin du, «pareta baterantz goaz abiadura handian eta ezin gaitu inork gelditu».

«Guk jada kaskezurra hautsi eta aurrera ateratzen ahalegintzen denarekin egiten dugu lan», dio eskuak burura eramanez. Beste adibide bat: «Hiri guztiek badituzte euren bitrina eta papepontziak —halaxe deskribatzen du gizarte europarra Irrintzi Peñako kide leiala den nafar honek—, eta nik hiria paperontzietan dagoen zaborraren bitartez ikusten dut».

Pedro Meca, bere abizenaren izen bereko leku santura inoiz joan ez den nafarra, bihozkada baten ondorioz alegatu zen behin-behinekotasuneko mundu honetara. «Ostatuan lanean hasi nintzen —elkarrizketaren haria berreskuratzen du solasaldian zehar izan diren telefono dei zenbaezinetako baten ondoren— nire lagun bat zelako bertako arduradun, eta nire interesa piztu zuen mundua aurkitu nuelako». «Beno, ibilbide bat ere izan da —dio, hainbat minututan gogoe-ta egin eta gero—. Lehen Euskal Herriaren aldeko borroka zen, langileriaren aldeko borroka; nire mundua beti izan da zapalduen mundua. Gaurko askatasuna kalean deseginda dagoen jendearen askatasunaren alde borrokatzea da». Hala ere, errebantxa gisa, «indiferentziaren mundualizaziorantz» goazela gaineratu du.

«Gure zilborrari gehiegi begiratzen diogu» • Pedrok Euskal Herria aipatu du. Gai derrigorrezko da. «Euskal arazoari buruz —baiezatu du bere azken meza abenduaren 24an,

bizilekurik gabeko 1.400 lagun en aurrean eta kartoiekin eraikitako aldare batean eman zuen dimgotar honek— kanpotik argiago ikusi dudala erran behar dut, sudurra bertan sartuta nuenean baino. Distantziak gauzak era ezberdinean ikusteko aukera eskaintzen du, hartu edo utzi egin dezakezu».

«Nire ustez gure zilborrari gehiegi begiratzen diogu han —dio bere sabel handiak ezkututzen duen berea ukitzen duen bitartean—, badirudi munduko ara-

Pedro Meca:
«Ostatuan egon nintzen bitartean ez nintzen konturatu lan hau zein jende gutxik egiten zuen»

zoak mugan bukatzen direla. Horregatik, Euzkadi baino Euskal Herria terminoa gogokoagoa dut nik, euskal herriaren kontzeptua, gizakiarena, euskal lurraldearena baino».

«Barruan dagoenak atea zabalik utzi behar du —Abée Pierreren metafora gogoratu du gai horri buruz—, eta atea ez bada leiho bat, edo bestela kristala apurtu behar da, baina beti sartu behar da airea kanpotik».

«Nik euskal herriaren kide naizela aldarrikatzen dut, nik ez

dut mugak dituen herria nahi, mugak kontrabandoan aritzeko dira. Nire ustez, nazio bat eraiki nahi izan da baina estatuaren egituraketa burgesa errepikatuz».

Bokazio bat esaldi bakarrean laburtzea beti da zaila. Pedrok hiru lerrotan egiten du. «Gizakiarentzat janaria, jantzia eta lo egiteko lekua izatea da garrantzitsua, baina harremana hori bezain garrantzitsua da. Hori sortu nahi dugu guk hemen». X

Isabel Diez, etorkinekin

ISABEL DIEZ DIAZ orain 21 urte Parisen bizi den 45 urteko nafarra da. Parisko Euskal Etxeak Nafarren Eguna ospatzeko deia zabaldu du eta Isabel da bultzatzaileetako bat. «Frantzia osoan, Hegoaldeko 200 etorkin nafar baino gehiago ez gara. Iparraldekoak askoz gehiago dira, emigrazioa bertan askoz indartsuagoa izan baitzen. Gure artean, gehienak Erriberatik etorritakoak gara, batzuk Iruñerrikoak eta gutxi batzuk mendialdekoak». «Parisera 24 urterekin alegatu nintzen —gogoratzen du Isabelek—, 1974. urteko urrian, eta garai hartan modan zegoen psikologian matrikulatu nintzen. Orduan Freud irakurtzen nuen nik, psikoanalista guztiak, baita marxistak ere». Unibertsitatean urte bakarra eman zuen eta, 1989. urtean linguistika ikasten hasi eta bukatu zuen arte, ez zuen berriro ikasi.

«Kultur egarriz etorri nintzen, filosofoak eta han irakurtzerik ez zegoen klasikoak ezagutzeko gogoz, atzerrian urte batzuk eman eta europartzeko asmoz, behin formatu ondoren, Euskal Herrira itzultzeko. Ilusio handia egiten zidan Bilbo edo Donostia itzultzeak. Baina, badakizu, maitemindu egin nintzen, hogei-ta abar urte dituzunean gertatzen den gauza baita, bi alaba izan nituen eta gelditu egin nintzen».

Isabel Diezek gogor egiten du lan emigratioaren munduan. Paris eta Madrilgo gobernuetako kontsultarako hainbat egituratako kide da, baita hainbat etorkinen taldeetako kide ere. «80ko hamarkadan etorkinek osatutako taldeekin harremanetan jarri nintzen eta gaiak liluratu egin ninduen». «Bokazio sozial eta politikoa ez datorkit familiatik —zehazten du—, Mariaren Legioa izeneko Iruñeko elkartearekin izan dudana harremanetik baizik. Nafarroako behin-behineko langile, ijitu eta marjinatuei laguntzen ziren erakundea zen. Jatorriak gogoratuz, bere amaren familia Nafarroako euskalduna zela erraten du, «aitarena Bilbora lanera etorri zen mende hasieran, trenbideekin batera. Ni Iruñean jaio eta bizi izan nintzen, nahiz eta hamar urtez, aitak Diputazioan lan egiten zuenez, Tuteran bizi izan ginen. Aitaren familia osoa errepublikarra zen, haien atzetik ibili ziren beti, kartzelan egon ziren eta erbesteare ezagutu zuten. Hala ere, historia



Isabel Diez Diaz Parisko kaleetan.

JULEN ARRIOLA



Etorkinekin egiten du lan Isabel Diezek Parisen.

ARTXIBOKOA

ez dut ongi ezagutzen nire amak ez baitzuen haiekin harreman handirik izan genezan nahi».

Nafarren Eguna antolatu ahal izateko zailtasun handiak izan dituzte nafarrek harremanetan jartzeko. «Frantzia nafarrak ez daude batere antolatuak. Argentinan eta Txilen askoz egituratuagoak daude zentro nafar edo euskal-nafarretan. Hemen hainbat zentrotan aurki ditzakezu, batzuk Euskal Etxean, baina oso sakabanatuta gaude».

Nafar etorkinaren soslaia azkar egiten du, ongi ezagutzen duen adierazle. «Gizon baseritarra da batez ere, denetarik egiten duena. Egun 50 urte ditu eta ongi kokatua dago; etxe propioa du, ikasketak dituzten seme-alabak eta Nafarroarekin zerikusirik ez duten edo isolaturik dauden zentro kulturantz dunetan barneratua dago».

Isabel Diez:

«80ko hamarkadan hasi nintzen etorkinekin harremanetan eta gaiak liluratu egin ninduen»

«Irrati portugaldar batean asetero bi orduko programa hamar urtez egin genuenean, jotak jartzen nituelako deitzen zuten nafarrek. A zer-nolako aurpegia jartzen zidan soinu teknikariak».

Nafarren egun honek, «Euskal Etxearen 30 nafar baino gehiago biltzen zituzten Anaiarteako Jardunaldi haien asmoa berreskuratzen du. Euskal Etxearen garairik politikoena zen hura. Espainiarekin gatazka politikoa zegoen garaia, frankismoaren aurkako borroka, alegia. Oso giro jatorra sortzen zen».

Isabel Diez Diazen soslaia dago-kionez, amerikar erako karrera ikasi zuen Opus Dein. «Arte liberalak zuen izena, filosofia eta letrak karreraren antzekoa», dio. «Bukatu nuenean Madrilera joan nahi nuen baina gurasoek ez zidaten utzi. Tirabirak izan genituen heldua ez nintzela uste zutelako eta hiri handi baten beldur ziren. Orduan Parisera nindoala esan nien, eta noski, ideia ez zitzaizen batere gustatu. 24 urterekin etxetik aldegin nuen, oso gauza arrunta garai hartan. Autostop egiten hasi nintzen, hona ekarri ninduten eta gaur arte». X

Meca eta Diez,
Nafarroatik Parisera

Pedro Meca, behartsuen apaiza

Compagnons de la nuit etxerik gabekoen aldeko elkartean egiten du lan apaiz nafarrak Parisen

Berriemate berezia
Julen Arriola / Paris

PARISKO Auzo Latinoko bihotzean zegoen Le Cloitre ostatua, Frantziako hiriburutik igarotzen ziren kolore guztietako eskal errefuxiatuentzako derrigorrezko bilgune izan zen urte askotan zehar. Barraren atzean, Pedro Meca Atarrabiako apaiz nafarra zegoen, Txiki eta Otaegiren fusilamenduaren eta Burgosko prozesuaren garaian Frantziako telebista ezkutuan ikusten zutenentzat ezaguna zen pertsona.

Hura aurkitzea ez da erraza izan. Hala ere, Parisen desagertu ahal ez izateko adina jende ezaugutzen du Pedro.

Gaur, 26 urte igaro ondoren, betikoa da Pedro, 60 urte bete berri ditu, eta «aurten ere entzierroa korritzeko gogoz» dabil. Bere egiteko nagusia, beti bezala, injustiziaren aurkako borroka da, eta oraingoa, zehazki, miseria bera eta Parisko kale eta metroko andenetan derrigorrez bizi diren milaka lagun ekoera gogorra arintzeko borroka da. Compagnons de la nuit elkarrekin bere denbora gehiena betetzen du gaur egun.

Derrigorrez errefuxiatua • «Errefuxiatua zen ama ikustera etorri nintzen Parisera lehen aldiz hamazazpi urte nituela. Espainiara nintzen galdetu zidatela gogoratzen dut, eta nik, ezetz, Atarrabiakoa nintzela. Pentsa ezazu, garai hartan ez zuen inork bidaiatzen eta halako kontzeptuak oso ahulak ziren», dio.

«68ko maiatza zela eta Frantziatik bota ninduten —dio etorri handiko lagun honek—, eta ondoren, 1969an, itzuli nintzen Parisera. Hiri handiek eskaintzen duten anonimata aprobetxatu nahi izan nuen baina hau Burgosko prozesuaren auzia piztu bezain laster bukatu zen. Euskal Batzordea bultzatu genuen hemen, eta hasieran bi lagun baino ez geunden bertan. Telebistan, irratan, ekitaldi publikoetan asko agertu ginen eta hori espainiarrek ez zuten batere ongi ikusi, nire estradizioa eskatu zuten, eta nik, errefuxiatua ez nintzenez, hemen gelditu behar izan nuen. 1976. urtera arte Euskal Herriarekiko elkartasun mugimenduan hartu nuen parte, itzuli ahal izan nintzen arte».

Denbora gutxi eman zuen Euskal Herrian Pedrok. Berehala Iruñea berarentzat txiki gelditu zela konturatu zen eta berriro prestatu zuen maleta, eta, turroia jan ondoren, Pariserako trenara hartu zuen berriro.

«Orduan hasi nintzen Le Cloitren (Klaustroa) lanean —bere bizitza gogatsuko aro berri hari buruz egiten du gogoeta—, Abée Pierrek erositako ostatua zen, eta arazoak zituen jendearekin lan egiten zuen elkarrekin bati eman

Pedro Meca hamazazpi urte zituela ailegatu zen Parisera lehen aldiz, bertan errefuxiatua zuen ama ikustera. Injustiziaren aurkako borroka izan da beti bere egiteko nagusia, Le Cloitre ostatuko barraren atzean lehendabizi, eta Compagnons de la nuit elkartean barnean ondoren. Hirurogei urte bete berri dituela, betikoa da Pedro Meca apaiz domingotar nafarra.



Parisiko clochard-en alde egiten du lan Pedro Mecak.

ARTXIBOKOA

Pedro Meca:

«Parisiko metroan bizi den clochard-aren mitoa bukatua da, egoera aldatu egin delako»

zior berak. Bertan, erdi zerbitzari erdi hezitzaile nintzen, hau da, droga, alkohol eta abarrekin arazoak zituen jende guztiarekin egiten genuen lan. Ostatua beraiengana hurbiltzeko modu ona zela uste genuen. 85ean itxi zen arte, miakarra eta euskaldunen bilgune izan zen».

«Noski, Poliziak bazekien —gaineratu du irribarre maltzurra ahoan duela gure galdera bati erantzunez—. Behin sorgorikaren aurkako poliziak etorri ziren eta alde batera deitu ninduten. «Badakigu ETAko kide asko datorrela hona —esan zidaten—, baina ez da hori guri axola diguna. Trafikatzen duen jendearekin laguntzea nahi dugu». Haizea hartzerantz bidali nituen, noski».

Egun batean ostatua itxi eta



Hamazazpi urterekin ailegatu zen Meca Parisera.

JULEN ARRIOLA

bere bizitza markatuko zuen zerbaitez jabetu zen. «Ostatuan nengoan bitartean ez nintzen ohartu lan hau hain jende gutxi egiten zuenik». Euren zeregina garrantzitsua zela ohartuz, «beste lagun batzuekin batera, elkarrekin berriro martxan jartzea erabaki genuen, izena aldatu genion eta halaxe jaio zen Les Compagnons de la nuit, orain dela hamar urte».

Elkarrekin honen eta La moquette (Moketa) zentro sozialaren bitartez, hain zuzen, arazoak dituzten pertsonak bizi diren ghetto-a apurtu nahi dute, eta, era berean, bizileku zehatzik ez dutenen eta badutenen arteko topaketa lekua sortu. «Norbaitek laguntza eskatzen badigu, bera dela guri lagundu behar diguna esaten diogu beste ezer baino lehenago, bera dela pote bat hartzerantz gonbidatu behar gaituzena», dio, eta elkartasunaren kontzeptu asistentzialistak amaitu behar duela azpimarratu du.

«Parisiko metroan bizi den clochard-aren mitoa bukatu da, baldintzak aldatu egin direlako», dio hainbeste interesatzen zaion gaiaz mintzatzean.

«Clochard-a ez zen eskalea,

Integrazioaren Bidean

Gazte ezinduk lan munduan barneratzeko Laguntzarekiko Enplegu Plana garatuko dute Nafarroan

Europako Batasuneko 'Horizon II' ekimenaren barruan, Laguntzarekiko Enplegu Plana martxan jarriko du Nafarroan Bidean, Lan eta Hezkuntza Integrazioaren Aldeko Elkarteak. Hamahiru gazte ezinduk lan munduan barneratzeko aukera izanen dute plan honen bidez. Isabel Arbonies proiektuaren koordinatzaileak hezkuntzan bezala lan munduan ere integrazioa funtsezkoa dela azpimarratu du.

Eduarne Elizondo / Iruñea

HAMAIIKA URTEKO ibilbidea du Nafarroan hezkuntza integrazioak. Oinarritzko Hezkuntza Orokor arruntak zabaldu zituen lehenik bere ateak ezintasun psikikoak zituzten haurrentzat. OHOk urteak amaituta, Lanbide Heziketako eskoletan ere integrazioaren aldeko apustua egin zuten haur hauen guztien gurasoek eta baita lortu ere. Nafarroan Bidean Lan eta Hezkuntza Integrazioaren Aldeko Elkarteak hartu zuen bere gain borroka hori orain hiru urte. Borroka horrek fruiturik eman zuen eta Tuteran lehendabizi eta Iruñean gero, hezkuntza bereziko zentroak ez ziren Lanbide Heziketako Institutuetan ikasi ahal izan zuten gutxituek. Gaur egun herrialde osoko eskoletan 111 ikasle daude, ostalaritza, mekanika, elektrizitatea, ehungintza eta nekazaritza-basogintza ikasten.

Integrazioa, hala ere, ez da hezkuntza munduan amaitzen. Behin hori lortuta erronka berriari egiten diote egun aurre Bidean elkarteko kideek, lan munduari, alegia. Elkarte honek, hain zuzen, Europako Batasuneko Horizon II ekimenaren barruan, Laguntzarekiko Enplegu Plana jarriko du martxan, Madrilgo Down Sindromea eta Orleanseko (Frantzia) AFEC elkarteekin batera. Plan honen helburua ezinduk benetako lan munduan barneratzea da. Printzipioz bi urte iraunen du baina beste bi luzatzeko aukera ere aurreikusituen da. Aurrekontua 40 milioi pezetakoa da (1,6 milioi libera). Erdiak Europako Elkarteak ordainduko ditu eta gainontzekoa Nafarroako Gobernuak (% 45) eta Bidean elkarteak berak (% 5).

Planaren izenak berak argi azaltzen duenez, ezinduk lana aurkitzen lagunduko dituen begiralea da proiektu honetako ardatza. Hamahiru gazterentzat aurreikusitako plan honetan bi begirale izanen dira lan honen arduradun. «Katalunia eta Mallorca orain lau eta bost urte hasi ziren esperientzia hau martxan jartzeri eta bertako emaitzek azaltzen dutenez, urte bakoitzeko begirale bat behar da lau edo bost gazterentzat». Horieta bat Bidean elkarteko psikologoa bere, Miguel Noain izanen da. «Gure



Ezinduen integrazioaren alde egiten du lan Bidean elkarteak.

ANDER GILLENEA



Lanbide heziketako institutueta 111 ezinduk ikasten dute gaur egun.

ANDER GILLENEA

«Enpresek ez dute legea betetzen»

1982. urtekoa da Estatuko Ezinduen Integrararako Legea (LISMI). Bidean elkarteko kideen ustez, lege honek ez du bere helburua bete eta ez ditu benetako integrazioa ahalbidetzeko neurriak sortu. Hori dela eta, ezinduk lan munduan sar daitezten egungo legediak aurreikusituen duen ingurua nahiko murriztailea dela uste dute. «Enpresek ez dute legeak ezartzen duen enpleguak gordetzeko % 2ko kopurua betetzen —Frantzia % 7koa da— eta Enplegurako Zentro Berziek ere ez dute euren helburua bete, hau da, lan erregimen arruntean ahalik eta ezindu kopuru handiena barneratu. Era-

kundeek, gainera, ez dute gizartea kontzientziatzeko behar den informazioa bultzatu, legeak aurreikusituen duenez». Gizartea kontzientziatzeko zeregina Nafarroan Bidean elkarteak hartu du bere gain. Isabel Arbonies proiektuaren koordinatzaileak hitz gutxitan azaltzen du lortu nahi duten helburua: «Guztiak gara ezberdinak eta elkarrekin modu bateko edo beste-lako mugak dituzten mundu berdintzaile eta eskuragarriago sor dezakegu. Argi izan behar dugu integrazioa ez dela berdintasuna, alderantziz baizik, integrazioa, ezberdintasuna aberasgarria eta gizateriaren ondasuna

dela onartzea da». Nafarren kontzientziak astintzearekin batera, benetako integrarantz hainbat pauso eman ditu Bidean elkarteak. OHOk ikastetxe arruntak euren seme-alabentzat zabaldu zituzten lehendabizi elkarteko kideek, Lanbide Heziketako institutuena ondoren. Oro har, beste edozein haur edo gazte eskura ditzakeen euren esku jarri nahi izan dituzte. Aurreko helburu hauek bete ahal izateko eta benetako zentzua izan dezaten, lan munduaren esparruko ekimenak bultzatzea da egun egiten ari direna eta Laguntzarekiko Enplegu Plana da horien ardatz. Miguel Noain Bidean elkarte-

ko psikologoak azpimarratu duenez, «Enplegurako Zentro Berziak izan dira orain arte ezinduek lan egiteko izan duten aukera bakarra. Euren lana ez dugu baztertu nahi, bide berria, beste aukera zabaldu besterik ez dugu egin nahi». Laguntzarekiko Enplegu Plana Lanbide Heziketatik zein Zentro Berzietatik datozten gazteentzat zabalik badago ere, ikastetxe berezi eta arruntetan hazi diren gazteen artean ezberdintasunik badagoela azaltzen du Noainek: «Ikastetxe arrunt batean ikasi duen haurrak harreman gehiago izan ditu beste haurrekin. Beste edozein haur bezala jolastu eta borrokatu da».

zeregina ezindua laguntzea da. Bere betebeharrak zein den azalduko diogu eta hasieran berarekin emanen ditugu lanordu guztiak. Pixkanaka-pixkanaka, bere lana ongi egiten ikasten duenean, bakarrik utziko dugu baina gure arteko harremana moztu gabe». Miguel Noainek azaldu duenez, «gazte guztiak ez dute dendora tarte bera behar lanera egokitzeko, batzuk hilabete osoa emanen dute, beste batzuk, ordea, aste bate. Begiralea, beraz, gazte bakoitzaren beharrak hartu beharko ditu kontuan eta horien arabera lan egin».

Proiektuaren lehen urratsa Iruñerriko 200 enprekin gutunen bidez harremanetan jartzea izan da, bai publiko zein pribatuak. «Gazteen ikasketak kontuan hartuta enpresarik aproposenak aukeratu ditugu. Ondoren, enpresa bakoitzeko arduradunekin hitz egin eta lanaren baldintzak ikusi eta gero, ikasle bakoitzaren soslaia aztertu eta ahalik eta egokitasun handiena bilatzen salatuko gara, lan motaren eta gaztearen artean, azaldu du Isabel Arbonies proiektuaren koordinatzaileak. Proiektua hamahiru gazterentzat bada ere, lan munduan askoz gehiago sartuko dituztela ziur da Isabel Arbonies.

Erran bezala, enpresa pribatu eta publikoetara jo du Bidean elkarteak baina koordinatzaileak ezberdindu nahi izan du: «Enpresa pribatuetara eskean joan gara baina Administrazioari legea bete dezian eskatuko diogu. Administrazioaren zerbitzu publikoak kontratatzen dituzten enpresen artean ezinduk kontratatzen dituztenak saritzea, aukera egokia izan daiteke».

«Dena ongi antolatuta utzi behar diegu» • 1993. urteko martxoan sortu zen egoitza Burlatanduen Bidean Lan eta Hezkuntza Integrazioaren Aldeko Elkarteak. OHO ikastetxe arruntetan egindako haur ezinduen gurasoek sortu zuten, ordura arteko ikasketei jarraipena emateko asmoz. Lanbide Heziketako institutueta ikastetxo aukera lortzea izan zen, beraz, elkarte honen borroka lehen urratsa. Hura irabazi egin zuten eta egun, Nafarroa osoko hamahiru ikastetxetan ikasten dute ezinduek gainontzeko gazteekin batera. Borroka hala ere, ez da hor amaitzen.

Lan munduaren esparrua da Bidean elkartearen bigarren borroka baina ez da, inondik inora, azkena izanen. Cary Chacon hamahiru ikastetxe horietako batean ikasten duen gazte ezindu baten ama da eta euren aldarrikapenaren zergatiak azaldu dizkigu: «Hau da ibilbide logikoa, lehen urratsa lortu ondoren ezin ginen bertan gelditu. Lan munduan egun dugun borroka amaituta ere beste batzuei ekinen diegu, integrazio osoa lortu arte, gure seme-alaben bizitzaren zikloa amaitu arte». Isabel Arboniesek Cary Chaconen hitzak bere egin ditu: «Dena ongi antolatuta utzi behar diegu», gaineratu du. X

* ◆ Pantxo Egozkue ◆ Gidari ohia

«Italian hemen baino ezagunagoa naiz»


Europako txapelduna bitan izan da mendi igoeran Pantxo Egozkue. 1994. urtean bigarren txapela irabazi ondoren gidaritza utzi behar zuela erran zuen, ez baitzuen babeslerik aurkitzen. Hurrengo urtean, ordea, errepideetara itzuli zen, nahiz eta Europako Txapelketa ez zuen bukatu. Izan ere, hamaika aldiz apurtu zitzaion autoa. Seinaletzat hartu du eta gidaritzari agur erran dio, behin-betiko, antza denez.

Edume Elizondo / Atarrabia

Bederatzi urterekin gidatzen ikasi zuen Pantxo Egozkuek irribarra galdu gabe erran dugu gidaritzari agur esan diola. Izan ere, Europako txapelduna bitan izan ondoren, pozik da atarrabiarrak lortutakoarekin. «Familiarekin denbora gehiago egoteko garaia iritsi da. Egin dudan guztia, gainera, ez dit inork kenduko».

■ 1994. urtean Europako txapela bigarren aldiz irabazi ondoren, auto gidaritzari agur erran zion. Iaz, hala ere, hainbat lasterketatan parte hartu zenuen. Azken aldian berriro entzun dira zure agurrari buruzko berriak. Egia al da gidaritza utzi egin behar duzula?

Bai. Mendi igoeraren espezialitatean lor daitekeen saririk handiena irabazi dut bi aldiz. Europakoa, alegia. Nere bizitza osoan izan dudan ilusioa zen hori eta bete egin dut. Nik asko arriskatu nuen lehiaketetan parte hartu ahal izateko, eta uste nuen Europako txapelduna izanik babesleak berehala hurbilduko zirela neregana, gidaritzari esker biziko bizitza uste nuen. Baina ez da gertatu. Europako txapela bi aldiz irabazi nuenean hainbat gidarik ere zorte izan



Gidaritzari agur erran dio Pantxo Egozkuek.

JOXE LACALLE

nuela erran zuten, eta, horregatik, bigarren txapela nere garai-pena kasualitate hutsa ez zela frogatzeko irabazi nahi izan nuen, eta halaxe egin nuen. Orduan ni nintzen azkarrena eta horregatik irabazi nuen. Egun oraindik azkarrena ni naizela uste dut, baina ez dut behar dudana taldea. Aurten, beraz, ez dut korrituko.

■ Babeslerik aurkitu ez duzulako utzi duzu, beraz, gidaritza?

Alde batetik bai, motibazioa galdu baitut horren ondorioz. Bestalde, inoiz uste izan nuena baino askoz gehiago lortu dut gidaritzaren munduan, gailurrera iritsi naiz. Nere ilusioa bete egin dut; beraz, orain jada ez du zentzurik bizitza arriskatzeko erpe-

dean edo nere familia sakrifika-tzeak. Egia erran, talde baten eskaintza jasoko banu, lasterketara itzuliko nintzateke, baina bakarrik dirua irabaziz gero. Bestela ez du zentzurik.

■ Autoan mendietan gora eta behera ibiltzeko gogoa, beraz, baduzu oraindik?

Bai, noski, eta beti izanen dut, ziur naiz. Gidatzea neretzat, finean, droga bat bezala da eta orain monoarekin nago. Hala ere, beste gauza batzuk bilatu eta aurkitu ditut, eta batez ere familiarekin denbora gehiago ematen dut.

■ Baina mendiko gidaritzaren munduan zergatik da hain zaila babeslea aurkitzea?

Lehenik eta behin oso gutxi bultzatu den kirola delako. Automobilismo Federazioak beste politika jarraitu du mendiari dagokionez. Ez baitzaie interesatzen, oso arriskutsua delako eta dirurik irabazten ez dutelako. Gauza asko ikusi dut, baina ez

dut nere kirolaren federazioa izan dena kritikatu, ezta babesleak ere, batzuek lagundu izan didatelako. Isiltzea besterik ez zait gelditzen, okertu naiz, zorte txarra izan dut, zailtasun eta oztopo handiko kirola aukeratu baitut. Guztia alde batera utzita, gainera, kontent nago egin dudanarekin. Erreta bukatu dut, baina ez dut inor kritikatu. Mendiko gidaritzari, finean, oinarria falta zaio. Italiako Federazioko kideek ere erran zidaten han ni bezalako gidari bat askoz gehiago esplotatuko luketela eta gidaritzari esker betiko bizitzeko adina diru irabaziko lukeela. Italian, hain zuzen, hemen baino askoz ezagunagoa naiz.

■ Zure herrian merezi izan duzun arreta guztia ez dizutela eskaini sentitzen al duzu, emateko zenuen guztia ez dutela aprobetxatu?

Nere herrian, egia erran, babes- turik sentitu naiz beti. Egia da Miguel Indurain ere Atarrabiakoa

s o s l a i a

Pantxo Egozkue Mexikon jato zen orain 40 urte, baina bihotzez Atarrabiakoa dela argi utzi nahi du. Bertakoa du emaztea eta bertan jaloak dira bere bi seme-alabak ere. Atarrabiako beste txapeldun honek 9 urterekin ikasi zuen gidatzen eta Simca 1.000 bat izan zen bere lehen autoa.

Errepidean mendietako maldak ditu gogokoan, eta zitu bizian ibili da gora eta behera hainbat urtez. Espainiako txapela lau aldiz irabazi du mendi igoeran eta Europakoa, berriz, bitan. Azkena 1994an eskuratu zuen, eta orduan gidaritzari agur erran behar ziola esan bazuen ere, iaz ere hainbat lasterketatan hartu zuen parte.

Iaz, hala ere, ez zuen zorte handirik izan, eta Europako txapelketan parte hartu bazuen ere, amaitu baino lehen utzi egin behar izan zuen, hamaika aldiz apurtu baitzitzaion autoa. Aurten, beraz, ez du korrituko. Autoa saldu eta familiarekin denbora gehiago egoteko garaia dela uste du atarrabiarrak.

izanik bere itzalean egon naizela, baina horrek ez du nere karrerarekin zerikusirik. Nik gogor egin dut lan eta nahi nuen guztia, askoz gehiago ere bai, lortu dut. Gainera, herritarrak beti izan ditut ondoan. Europako lehen txapela 1993an irabazi nuenean omenaldia eskaini zidaten eta hura oso hunkigarria izan zen neretzat, ez bainuen espero.

■ Zure karrera osoko balantzea egitekotan zer erranen zenuke?

Begirada atzera bota eta inoiz ez nuela pentsatuko ailegatu naizen lekura ailegatu nintzela erran behar dut. Poztu egiten nau horrek, kontent naiz egindakoarekin eta hori ezin dit inork kendu. Gidatzen eman ditudan une guztiak gogoratzen hasiz gero, badira ezin azal daitezkeen sententzio asko, podiumera igotzea, adibidez. Halako uneak bizi egin behar dira benetan zer diren jakiteko. Nere bizitzako etapa bat bukatu da eta orain beste bat hasi da neretzat.

«Europako Txapelketa irabazi nuenean babesleak berehala hurbilduko zitzaizkidalda uste nuen, baina ez zen hala gertatu»

P A N E
LUCRANDO

ZALDI EROA

